

2012KO EKAINAREN 18AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hemezortzia

HILABETEA: Ekaina.

URTEA: Bi mila eta hamabia.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko zortzietan

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK: M^a Mar Celaya González

Aitor Aldasoro Iturbe

Alfonso Segade González

Josi Insausti Mujika

ETORRI GABEA: Unai Baztarrika Otegi

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2012ko maiatzaren 7ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- ZERBITZUAK ESLEITZEA

2012ko ekainaren 7ko Kontratazio Mahaiak proposatuta, ondorengo erabaki da:

Lehenik. Usurbe antzokia eta erakusketa aretoaren ustiapena, HTK FILM, S.L.ri, esleitzea, urtean 84.000 €ko prezioan gehi BEZri dagokion, 15.120 €.

Bigarren. Kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da. Egikaritze epearen hasiera, irailaren 1a izango da. Beste urte betez luzatzeko aukera egongo da, baina luzapena espresi onartu beharko da horretarako behar den erabakia hartuz. Kontratua luzatzen bada, abuztuari dagokion urte-arteko KPIren arabera eguneratuko da.

Hirugarren. Gobernu Batzordeko erabakia jakinarazten den hurrengo egunetik kontatzen hasita, 10 eguneko epean, jarraian aipatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko da behin betiko esleipena egin ahal izateko. Horretarako Alkateari baimena ematen zaio:

- 4.200 €ko balioa duen behin betiko fidantza.
- Arrisku profesionalen gaineko aseguru bat izatearen ziurtagiria izatea, 610.000 €ko balioa duena.

Laugarren. Behin betiko esleipena egin ondoren, kontratu administratiboa formalizatuko da.

3.- ZERBITZUAK KONTRATAZEA. Arrisku egoeran dauden gazte eta adingabekoentzat kaleko hezitzaileen esku-hartze programaren eta arrisku egoeran dauden adingabekoen familientzat esku-hartze familiarraren programa kontratatzeko baldintza plegua onartzea eta deialdi publikoa egitea.

Gaia ezagutzera eman ondoren, Josi Insausti jaunak (H1), adierazi du lizitazioaren ondorioz, aipatutako zerbitzuak emateko egun dagoen enpresa aldatzen bada eta nahiz eta langileen subrogazioa eman, arrisku egoeran dauden gazte eta adingabekoentzat kaleko hezitzaileen esku-hartze programan arazoak egongo direla, lizitazio prozeduraren ebazpena atzeratuko delako.

Horren ondorioz, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Deialdi publikoa egitea, baldintza plegu administratiboa y teknikoa onartuz, prozedura irekiaren bitartez eta publizitatearekin arrisku egoeran dauden gazte eta adingabekoentzat kaleko hezitzaileen esku-hartze programa eta arrisku egoeran dauden adingabekoen familientzat eslu-kartze familiarraren programa kontratatzeko.

1.- *Prozedura:* irekia publizitatearekin

2.- *Izapidetzea:* arrunta

3.- *Lizitazio prezioa:*

1 Xedea: Ingurune Irekiko Heziketa Programa

2012. urterako lizitazio tipoa 87.500 €koa gehi B.E.Z. izango da. Zenbateko hori hobetu dezake lizitatzailerak.

Lizitazio prezioan sartuta egongo dira gastu eta zerga guztiak, dietak , garraio gastuak, telefono gastuak, etab.

Lizitazio tipo honek zerbitzuaren gehieneko prezio osoa adierazten du, zerbitzuak sortzen dituen jarduerak barne; jardueretarako gutxienez urtero 3.000€ bideratuko dira.

2 Xedea: Esku-hartze familiarren Programa

2012.urterako prestazio bakoitzeko gehienezko prezioak hauek izango dira:

- 1.- Ikerketa eta proiektua egiteko ordua: 60€
- 2.- Bakarkako psikoterapia ordua: 60€
3. Terapeuta bakarrarekin egindako familia psikoterapia saioa: 80€
- 4.- Bi terapeutekin egindako familia-psikoterapia saioa: 100 €
- 5.- Familia-hezitzailearen ordua: 27€

Prezio hauetan ez dago B.E.Z. sartuta.

4.- Kontratuaren iraupena:

Kontratuaren iraupena BI (2) URTEKOA izango da kontratu administratiboa sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, eta luzatzeko aukera izango da, baldin eta bi alderdietako batek alde aurretik salaketarik jarriko ez balu, gutxienez, hiru hilabeteko alde aurreko abisuarekin. Luzatzekotan, urtebeteko alditan egingo da, eta, nolana ere, kontratuaren iraupen osoa, luzapenak barne, ez da lau urte baino gehiagokoa izango. Luzapena espresuki adierazi beharko da eta eskumena duen organoak erabakia hartu beharko du.

5.- Kaudimen ekonomiko, finantziario eta teknikoari buruzko agiriak:

- a) Arrisku profesionalen kalte-ordainari erantzuteko 150.000€ko aseguruaren egiaztapena.
- b) Enpresako arduradunaren eta zuzendaritzako kideen titulu akademikoak eta profesionalak, eta bereziki, kontratua gauzatzear arduratuko den pertsonarena.
- c) Azken hiru urteetan egindako lan edo zerbitzu esangurutsuen zerrenda kreditatua, prezioa, datak, eta zerbitzu horren hartzailea publikoa edo pribatua izan den zehaztuz. Lan horiek egiaztatzeke agiriak, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, eskuduntza duen organoak emandakoak edo ikus-onetsitakoak izango dira. Eta hartzailea pertsona pribatu bat denean, honek egindako ziurtagiri baten bidez, edo ziurtagiririk ezean, enpresako arduradunaren aitorten baten bidez egiaztatuko dira.

6.- *Espedientea:* administrazio-baldintzen eta baldintza teknikoaren pleguak eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian (www.beasain.net). Zehazki kontratistatzailearen profilean.

7.- *Proposamen eredia:* Baldintza Administratiboaren pleguaren azaltzen dena.

8.- *Aurkezteko epea, lekua eta ordua:* Proposamenak, Beasaingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 20 egunetan.

9.- *Adjudikazio irizpideak:*

1 Xedea: Ingurune Irekiko Esku-hartze Programa:

- 1.- Proposamen ekonomikoa: Gehienez 10 p.
Proposamen merkeenari 10 puntu emango zaizkio. Gainontzeko eskaintzak proportzionalki puntuatuko dira.
- 2.- Esku-hartze proiektua: Gehienez 60 p.
 - Laneko metodologia (30p)
 - Ebaluaketa sistema (15p)
 - Proposatutako giza eta material baliabideak (15)
- 3.- Prozesuarekiko entitatearen estruktura organizatiboa eta funtzionala. Gehienez 15 puntu.
- 4.- Eskaintzaileak eskaintzen dituen borondatezko hobekuntzak. Gehienez 15 puntu.:
 - Programan jardungo duen pertsonal tekniko laguntzailea, titulu profesionala eta eskainiko dion denboraren ehunekoa zehatz adieraziz.
 - Eskatutakoaz gain Gizarte Hezkuntza diplomatura titulua duten teknikariak.

2.Xedea: Esku-hartze Familiarraren Programa:

- 1.- Proposamen ekonomikoa: Gehienez 5 p.
Zerbitzu bakoitzeko orduko prezioen batez besteko aritmetikoa izango da eskaintza ekonomikoa eta merkeenari 5 puntu emango zaizkio. Gainontzeko eskaintzak proportzionalki puntuatuko dira.
- 2.- Esku-hartze proiektua: Gehienez 35 p.
 - Laneko metodologia (15p)
 - Ebaluaketa sistema (19p)
 - Proposatutako giza eta material baliabideak (10)
- 3.- Prozesuarekiko entitatearen estruktura organizatiboa eta funtzionala. Gehienez 5p.
- 4.- Eskaintzaileak eskaintzen dituen borondatezko hobekuntzak. Gehienez 5 puntu.:
 - Programan jardungo duen pertsonal tekniko laguntzailea, titulu profesionala eta eskainiko dion denboraren ehunekoa zehatz adieraziz.

1 eta 2 Xedeetan lortutako puntuazioak gehituko dira.

10.- *Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua:* plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

11.- *Aurkeztu beharreko agiriak:* Lizitatzailleek administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

4.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko zortziak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.